

«Profesionalak izateko pausoa datorren urtean helduko da»



GARAZI CELAYA, NERE VIAR
ETA ZIORTZA ASKAITURRIETA
Leioako Emakumeak
taldeko jokalaririk onenak

hiruka

129. zenbakia

2018ko ekainaren 7tik 13ra arte

GORLIZKO TAO ZERBITZUA | 5

ZALANTZA UGARI HERRITARREN ARTEAN

Gorlizko Udalak ordenamendu berria zelan ezarri duen salatu dute auzokide askok egunotan. TAO martxan dago daborduko.

ERANDIOKO KIROLDEGIAK | 7

203 EGUNEKO GREBAREN OSTEAN, AKORDIOA

Sei hilabete eta erdiko greba amaitutzat eman dute udal-kiroldegiak kudeatzen dituen Bi Sport enpresako beharginak.

DENON ARTEAN IKERLANA | 8-9

GETXOKO EMAKUMEEN ELKARTEEI ERREPASOA

David Beorlegui historialariak Getxoko emakumeen elkarten eta mugimendu feministen sorreraren historia berreraiki du.

ANTZERKITXIKI PROGRAMA | 10

EUSKARAZKO ANTZERKI-ESKOLAK

Erandioko 4 eta 15 urte arteko umeek eta nerabeek ekainaren 15era arte edukiko dute aukera Antzerkitxikin izena emateko.



Genero-arrakala murrizten zientzian

Inspira proiektuan parte hartu dute Uribe Kostako lau ikastetzek, neskengan bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatu guran. Gaur egun, estereotipoak eta jendartea direla-eta emakumezkoek gutxiago aukeratzen dituzte horrelako ikasketak.

Nesken muga bakarrak garuna

Ikasketa teknologikoak aukeratzeko gero eta gutxiago dira Euskal Herrian. Emakumeen artean, egoera nabarmenagoa da. Estatuan %54,3 emakumeak dira, baina titulazio teknikoetan, Ingeniaritzan eta Arkitekturan %26,4 besterik ez. Hori iraultzeko jaio da Inspira ekimena.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

MARRAZKIAK: KAIKOO STUDIO - INSPIRA STEAM - DEUSTUKO UNIBERTSITATEA ▶

Emakumeek eta zientziak gaur egun bizi duten egoera laburbildu du Leioako Irlandesaseko Batxilergoko 2. mailako mutil batek, ikastetxeak egindako bideo batean: «Azken ikerketen arabera, unibertsitateetako ikasleen %57 emakumezkoak dira, baina %10 soilik, ehuneko oso txikia, dabil STEAM arloetan», alegia, zientzian, teknologian, ingeniartzan, artean edo matematikan. «Berbarako, emakume askok medikuntza ikasi dute eta oso gutxi industria-ingeniartzan». Ikasle horrek esandakoa da María Luz Guenaga Gómezek hainbat berbaldi eta aurkezpenetan azaldutakoaren isla; informatika-ingeniartzako doktore, Deustuko Unibertsitateko Deusto Learning ikerketa-taldeko arduradun eta Inspira proiektuaren koordinatzailea da Guenaga. Inspirako koordinatzaileak hainbat ikerketetan oinarrituta azaldu duenez, «sei urte besterik ez dauzkatenean, neskek desberdin ikusten dituzte euren buruak; eta beti txarrerako».

Hala sortu zen Inspira proiektua 2016an, nesken bokazio zientifiko eta teknologikoak sustatzeko asmoz; urte bitan, ekimena aitzindari bilakatu da EAEn. Aurten, 44 ikastetxetako 1.300 neskek baino gehiagok eta beste hainbeste mutilek hartu dute parte sei lan-saiotan, hainbat gai jorrazteko: inguruko estereotipoak, lana, eta emakumea eta zientzia historian zehar, besteak beste. Deustuko Unibertsitateak bultzatu du ekimena, Elhuyarregaz, Innobasquegaz eta beste hainbat eragilez elkarlanean. Uribe Kostan, Irlandesasek ez ezik, proiektuan parte hartu dute ere Leioako Mercedarias ikastetxeak, Astrabuduko institutuak eta Algortako San Nikolas ikastolak.

FUNTSIK BAKO AURREIRITZIAK. Ekimenean, sentsibilizazio- eta orientazio-ekintzak egiten dituzte, ikerketa-, zientzia- eta teknologia-arloetako emakume profesionalen eskutik. Eskualdean bederatzi emakume aholkularik edo mentorek parte hartu dute, ikastetxeetako hainbat irakaslegaz batera. Euretako bigaz egon da HIRUKA: Sara Ponce Márquez Deustuko Unibertsitateko Nazioarteko Proiektuen Bulegoan jarduten duen Farmazia eta Teknologia Farmazeutikoko doktore gorliztarra, eta Iratxe Menchaca Cortázar AZTIko Itsaso eta Kostaldean Ingurumen Kudeaketako teknikaria eta Biologiako doktore barakaldarra. Biek ala biek balorazio oso ona egiten dute proiektuaz. Poncek urri eta abendu bitartean jardun



Ekimenean parte hartu duten ikastetxeak



Astrabuduko institutua
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailako neskek eta mutilek, berbabide eduki zituzten saio eta fitxa berberak, bananduta.



Irlandesak ikastetxea
DBHko 1. eta Batxilergoko 2. mailako neska-mutilek parte hartu zuten proiektuan; bideoa ere egin zuten horren inguruan.



Mercedarias ikastetxea
Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta DBHko 1.ko ikasleek parte hartu zuten proiektuan; neskek mentoreak eta mutilek irakasleak.



San Nikolas ikastola
Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek parte hartu zuten. Azken saioa batera egin zuten neska-mutilek errealitate birtualez gozatzeko.


a eta gura izatea izan daitezzen

Emakume aitzindari batzuk



Maria Salomea Skłodowska-Curie

Erradiologia-arloan aitzindaria izan zen, eta lehena izan zen Nobel saria lortzen arlo bitan (Fisikan eta Kimikan). Gainera, Parisko Unibertsitatean lehenengo emakume irakaslea izan zen. Polonio eta radio elementuak aurkitu zituen, besteak beste.



Hedwig Eva Maria Kiesler

Maiztasun-jauziaren bidezko espektro hedatuaren (FHSS) teknika bat patentatu zuen, hari bako telekomunikazioaren bidea ireki zuena. Hala, teknologia digitala hedatu ahala, ahalbidetu zuen frekuentzien konmutazioak WiFi, Bluetooth eta GPS sistemak ezartzea.



Susan Jocelyn Bell Burnell

Pulsar edo neutroiez osaturiko izar baten radio-seinalea aurkitu zuen lehenengo astrofisikaria izan zen. Halere, Nobel saria bere tesi-zuzendariari eman zioten. Aurkikuntzak izarren jatorriaren eta bilakaeraren gaineko ideia berri ugari sortzeko aukera eman du.



Augusta Ada Byron

Matematikari eta idazlea, historiako lehen programatzailetzat jotzen da, makina batek prozesatzeko lehen logaritmoa kodetua sortu zuelako. Makina analitikoak ikertu zuen, eta etorkizunean ordenagailuek egingo zutena aurreikusitako. Txartel zulatua iradoki zuen.



Grace Murray Hopper

Zientzialari eta matematikaria, aitzindaria izan zen konputazio-zientzietan; Mark I konputagailurako hainbat aplikazio garatu zuen. Lehen konpiladorea eta komandoak prozesatzeko lehen konpilatzailea asmatu zituen. Hortik sortu zen Cobol hizkuntza.

Inspira manifestua: konpromisoak

Genero-ikuskeraren aldatzea

Hausnartu, eta berdintasuna dagoelako uste faltsua berrikusi. Berdintasun hori oraindik ez dela existitzen erakusten duten datuak ezagutu eta oraindik lan handia dagoela lortzeko konturatu.

Berdintasuna zabaltzea

Jendaurrean aitortu emakume eta gizonen gaitasun, eskubide eta erantzukizun berdina daukazagula eta aitormen bera merezi dugula.

Jendartearen kontzientziaztea

Berdintasun falta horren ondorioak ezagutarazi eta lan egin ekimen positibo beharrez gizarate kontzientziazteko eta berdintasunik eza saihesteko, zientzia- eta teknologia-sistema arduratsua eta askotarikoa sustatuz.

Emakumezkoen lana aitortzea

Emakume zientifiko eta teknologoak agerian ipini, historian izan direnak eta egungoak, haien lana aitortu eta erreferente berriak eratzeko.

Estereotipoak iraultzea

Gizarte-mailako estereotipoak buelta eman, genero-rolen gaineko usteak desmitifikatzeko; eta STEAM (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematika) arloetako lanbideen aukera zabaltzeko berri emateko.

Etorkizuna landu neskakaz

Neskak animatuta, gai eta aitortuak sentituko diren gizarte eta hezkuntza ingurua sortu, etorkizuna inolako muga barik aukeratu ahal izan dezaten.

Ahalduntzen laguntzea

Emakumeak ahalduntzen lagundu, hori maila guztietan lortzeko ekimenak garatu.

zuen Astrabuduko neskakaz: «Hainbat gai kontatu genizkien, eurak sendotzeko, emakumezkoek eta gizonetzkoek egin dezaketena- ren gainean jendartearen dauden aurreiritzien aurrean; azaldu genien aurreiritzi horiek ez daukatela funtsik. Bestalde, ahaldundu genituen ahalmen zientifiko eta teknologikoetan, eurek ere gara ditzaketena». Modu berean, erakutsi zieten eurek mutilek egin dezaketen beste egin dezaketela, «ez dagoela nesken- tzako karrerarik, mutilentzako karrerarik ez dagoen legez, denak denontzat direla baizik. Emaitzak oso onak izan ziren: neska denek parte hartu zuten; nahiz eta batzuei gehiago kostatu zitzaizkien irekitzea. Lortu genuen de- nontzako giro aberasgarria sortzea».

MUTILEK ERE IKASI DUTE. Menchacac azpi- marratu du Inspira proiektuaren helburua ez dela neska denak ikerlariak, zientifikoak edo teknologoak izatea, «baizik eta ez deza- tela pentsatu gutxiago egingo dutela edo ezin izango dutela, emakume izate hutsagatik».

Hainbat egoeratan ipini zituzten neskak, publizitatea analizatuta edo hainbat emaku- meren esperientzien bidez, eta galdetu zie- ten ea ezberdintasunik ikusten zuten lanbide batzuk gizonen batek eta emakumeen batek egi- tekotan. Batez ere, elkarrizketa eta eztabai- da sortzen ahalegindu zirela azpimarratu du Biologia doktoreak: «Horregatik geneuzkan soilik neskak. Izan ere, askotan, adin horie- tan, nerabeak oraindik ez dira eta lotsatu- ta senti daitezke zer esaten duten eta noren aurrean esaten duten. Nesken arteko giroan ahalegindu ginen aske eta konfiantzan senti zitezten, gura zutena kontatzeko».

Mutilek ere eduki berberak izan zituzten berbaride, zentroetako irakasleakaz: «Hor helburua izan zen ulertaraztea neskak euren parekideak direla», gogora ekarri du Ponck.

Estereotipoen gaiagaz hasi ziren, Mencha- cak oroitu duenez: «Aurreiritzien arabera emakumeak izan beharra du ama, familia zaintzen egin behar du lan, umeak edukitze- kotan lanbideari uko egin behar dio... Umeen- gan eta jendartearen txertatuta dauden hainbat aurreiritzi dira. Hori iragarkien adibideakaz eta filmakaz landu genuen. Egoera horiek helduen artean ere eztabaida eragiten dute. Bada, euren mailan, nesken arteko eztabai- da pizten ahalegindu ginen». Saio horretatik eta besteetatik oso emaitza onak ateratu zituen AZTIkoak: «Nire sentsazioaren arabera, nera- beak izatera heltzen ez diren neskatoek arre- ta zuzen ipintzea ordu batez, eta aste bat pasatu- ta etortzea albisteren, gairen edo galderaren batez niretzat esan gura du zer edo zer sar- tu zaiela. Positiboa izan da, batez ere pentsa- razteko. Sexuka banatze soilak harritu zituen oso». Datorren ikasturterako ez dauka zalan- tzarik: «Errepikatu egingo dut». Irlandesas ikastetxeko neskak ere pozik daude esperien- tziagaz: «emakume zientifiko batez egoteko aukera izan dugulako». ◀



Txiri-txiri

UXUNE IRIONDO URBISTAZU
Bilgune Feministako kidea

Gizonek zientzia eta andreok «zaintzia»?

Gaur egun, teorien behintzat, aukera, eskubide, eginbehar, erantzukizunetan berdin sortzen omen gara pertsonak gure herrian. Praktikan, haziz goazela gizaratearen oinarriko antolamenduan, erakundeetan, legetan, familian, ikastetxeetan, lan-munduan, aisian, kirolatan, mendetako egitura, eredu, pentsamoldeekin topo egiten dugu. Adinean gora goazela, desoreka, debeku, oztopo, marra gorri... Esana eta izana bat ez datozela ikusten hasten garenean, teoria eta praktika bat ez datozela ohartu ahala, batzuek errora jo eta egoera aldatzen saiatzen gara, bizitzak denontzat duina behar duelakoan.

Virginia Imaz Quijerak, gene- roaz, umoreaz eta emozioez ari zela, esan zigun funtsean, agian gure portaeren, emozioen, hautuen oinarrian dagoena hauxe dela: gi- zonak mundua kontrolpean izan nahiak bultzatuta, eginkizun han- diak jomugan hartuta, adibidez, fenomeno meteorologiko eta geolo- gikoak auresan eta zelan garaitu asmatzen saiatzen direla, eta an- dreok, ordea, bizia kontrolatu nahi izateak gure ingurukoak babestu eta heriotzatik salbatzeko erron- kan korapilatzen erosten gaituela. Arrazobide sinplea iruditu arren, gauza asko ulertzeko balio lezakee- la zioen. Bi helburuak ezinezkoak dira, jakina, baina izugarri baldin- tzatzen gaituzte bizitza osoan.

Dena den, garbi ikusten dut gi- zonezkoen ere eskatu behar diegula gogoeta egiteko. Nik behintzat nor- banako modura bainoago gurago nuke beraiek ere antolatuta aritzea horrelako gaien buruz gogoeta egin eta ekintzak antolatzen. Hobe ge- nuke beraien agendan lehentasu- na ematea gurekin zerikusia duten gaien, bestela jai dugu!

GETXO | Lan-baldintza duinen aldeko borroka

Lan-hitzarmen propioa lortu dute hondartza-garbitzaileek

Euren lan-baldintzak arautuko dituen zentroko hitzarmena edukitzeko akordioa lortu dute Getxoko Hondartzak 2015 enpresako beharginek, arduradunakaz egindako negoziaketaren ondorioz.

IKER RINCON MORENO ▶

Eguraldia horren erakusbide ez den arren, uda-sasoia heltzear dago, eta horregaz batera inguruko hondartzez gozatzeko garaia. 2012an, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Udalak lankidetzarako hitzarmena sinatu zuten Getxoko Areeta, Ereaga, Arrigunaga eta Gorrondatxe-Azkorri hareatzak garbitu eta egokitzeko lanak finantzatzeko. Hala, Getxoko Hondartzak 2015 ABEEko zazpi beharginak arduratzen dira gaur egun hondartza horiek denak herritarrentzat prest edukitzeaz.

Garbiketa-lanak, udako hilabeteetan, 04:00etatik 10:00etara egiten dira, eta gainerakoetan 06:00etatik 12:00etara bitartean. Horren truke, garbitzaile horien soldata ez da 1.000 euroa heltzen, aparteko ordainsariak hainbanatuta dauzkaten arren. Modu berean, beharginek salatu dute ez dutela subrogatzeko eskubiderik ezta inolako lan-hitzarmenik ere, ez delako existitzen hitzarmen probintzialik. Deitoratu dutenez, hitzarmen estatualak ez ditu lan-orduak, soldatak, lizentziak eta oporrak erregularizatzen, «baina ez digute hori ere aplikatzen, ea eskubideak dauzkagula pentsatuko ote dugun», diote ironiaz.

Beharginek jakinarazi dute horrelako egoeraren batean egon direla azpikontratatuak bestelako zerbitzuak udalerrian, eta horren ordez lan-hitzarmen propioa ipini dietela, hala nola kale-garbitzaileei, lorezaintzako langileei eta TAO zerbitzuan dabiltzanei. Horren aurrean, euren lan-baldintzak erregularizatuko dituen lan-hitzarmena aldarrikatu dute Getxoko Hondartzak 2015 ABEEko zazpi beharginek, baita lortu ere.

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, joan den ekainaren 1ean bildu ziren langileak enpresagaz. Bilkura horretan, hondartza-garbitzaileek eskatu zuten Getxoko kale-garbitzaileek daukaten lan-hitzarmena edukitzea euren ere, baina enpresak hori gehiegizkoa zela azaldu du, dirurik ez dagoelakoan. Horren ordez, langileek beste proposamen bat egin zioten enpre-



Zazpi behargin arduratzen dira udalerriko hondartzak garbitzeaz. HO DEI TORRES

Zentroko lan-hitzarmena, soldataren igoera eta lanorduak finkatzea adostu dute enpresak eta langileek.

sari, eta hark bestelakoa beharginei, eta horixe bera onartzea erabaki dute, ELAren berbetan. Hala, Getxoko hondartza-garbitzaileek hiru urteko lan-hitzarmena edukitzea lortu dute, hau da, datozen hiru urteetan beharginen lan-baldintzak hobetzeko zentroko hitzarmena. Modu horretan, Getxoko hondartza-garbitzaileek soldataren % 16ko igoera lortu dute, baita asteko lanorduak 36 izatea ere, besteak beste. Hasiara batean eskatzen zuten dena lortu ez duten arren, negoziaketen bidez eskuratutakoaren balorazio «oso positiboa» egin dute sindikatuak eta langileek, «garrantzitsuen lortu delako». Datozen egunetan sinatuko dute alde biek akordioa.

Enpresaren eta beharginen arteko negoziazioaren harira, Jose Luis Landa Getxoko Ingurumen Arloko zinegotziak azaldu du auzi horretan ere beste batzuetan eduki duen jarrera berberari eutsi diola Udalak. Hain zuzen, «akordiorako deia egin du Udalak; negoziazio kolektiboaren esparruan, enpresa eta langileen arteko negoziazioan eman behar zaio irtenbide bat lan-gatazkari». ◀

Udako Eskaintza 2018

aek udako plazer txikiak
pequeños placeres de verano

URIBE KOSTAko AEK

UDAKO IKASTARO TRINKOAK
ETA BARNETEGIAK

Leloa 944 64 60 63 · lamia@aek.eus
Getxo 944 30 47 34 · lauaxela@aek.eus
Plentzia 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus
Gorliz 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus

www.facebook.com/UribeKostako-AEK
www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus
673 200 100 · 946 464 000

Ezagutu gaitzazu!!!

San Nikolas IKASTOLA

SAN NIKOLAS IKASTOLA
(Arene azpi, 15)
94 430 54 78

www.sanikolas.eus

GORLIZ | Aparkatzeko arazoari irtenbidea eman guran

TAO sistemaren kontrako protestak egin dituzte egunotan

Udalak trafiko eta aparkamenduaren ordenamendu berria zelan ezarri duen salatu dute auzokide askok. Udalak aitortu du ordenantza ez dela «perfektua» eta datorren urtera begira moldaketak egon daitezkeela.

IKER RINCON MORENO ▶

Gorlizko Udalak TAO sistema berria zelan ezarri duen salatzen protestaldi bi egin dituzte egunotan auzokide eta merkatariek. Protestetan egondakoek azaldu dute arazoa ez dela TAOren tasa bera, baizik eta sistema berria osatzeko eta martxan ipintzeko Udalak egin duen kudeaketa, auzokideak «behar bezala» informatu ez dituelakoan.

Horren harira, Arantza Etxebarria Gorlizko alkateak adierazi du informatzeko arduraren dela, ordenantza joan den urteko martxoan onartu zelako. Era berean, alegazioen epean auzokideek proposamen bat ere aurkeztu ez zutela jakinarazi du alkateak; gerora, modifikazio biren ondoren, hamaika pertsonak alegazioak egin zituztela argitu du udal-arduradunak, «baina sakontasun gutxiak». Dena dela, aitortu du ordenantza ez dagoela guztiz osatuta, eta egiteko orduan udalerriko zati handi bat ez dutela kontuan hartu: «Ordenantza ez da perfektua, baina bizirik dago eta aldaketak egin daitezke».

Udalerriko merkatariek eta ostalariek salatu dute udal-agintariek ez dutela euren egoera kontuan hartu ordenantza egiteko orduan: «Guk ez dugu inolako bonurik jasotzeko eskubiderik, eta egunero etorri behar dugu hona lanera». Gaineratu dute TAO ordaindu behar izatekotan soldataren zati handi bat aparkatzera bideratu beharko luketela. Hori dela eta, deitoratu dute udal-arduradunak ez direla eurakaz harremanetan jarri ordenantza osatzerako orduan: «Guztiontzat egokiena izan zitekeen irtenbidea adostu genezakeen». Horren aurrean, alkateak azaldu du udalerrian Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga ordaintzen dutenen kasua ikertuko dutela datorren urtera begira, «egokitzat ditugun neurriak hartzeko».

ASTEKO ZAZPI EGUNETAN. Zerbitzua ekainaren 1ean ipini zuten martxan, udalerrira osoan, eta irailaren akabura arte egongo



TAO ezarri eta lehenengo egunetan isunik ipiniko ez duten arren, kalean aparkatzeari utzi diote askok. HO DEI TORRES

Eskarietako batzuk

- Doako aparkatze-eskubidea ordu erditik ordubetera luzatzea.
- Merkatariek eta udalerrian lan egiten dutenek baina Gorlizen erroldatuta ez daudenek frekuentzia altuko erabiltzaileen bonua eskuratu ahal izatea.
- Eguerdian TAO zerbitzuaren etenaldia egotea.

da indarrean. Gorlizen erroldatuta daudenek eta euren autoak Udaleko Ibilgailuen Erroldan inskribatuta daukatenek ez dute ordaindu behar izango udalerriko kaleetan aparkatzeagatik, baina bai hondartzetako aparkalekuetan, horiek biak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoan kokatuta daudelako eta hala erabaki duelako Itsasertz Mugarteak.

Tarifei dagokienez, gehienez 4,5 euro ordaindu beharko da gune urdina duten 32 kaleetako batean autoa lau orduz aparkatzeagatik; gune berdean, ostera, egun erdiko txartela bost euroan eskuratu ahal izango da, eta egun osoa zortzi euroan. TAO zerbitzua goizeko 09:00etatik 21:00etara egongo da indarrean, asteko zazpi egunetan. Gorlizen erroldatuta ez baina bertan etxe baten OHZ ordaintzen dutenek edo alokairu-kontratua daukatenek TAO-guneetan aparkatzeko bonuak eskatu ahal izango dutela iragarri du Udalak. Horretarako, azken horiek alokatzailearen OHZren ordainagiria aurkeztu beharko dute, besteak beste. Kasu horietan, lehenengo autoagatik 30 euro ordaindu beharko da, eta bigarrenagatik, beste 50. ◀

Pintxo goxo-goxoak txakolin batez lagunduak Portu Zaharreko txoko paregabea!



Portu Zaharra kalea, 35 • ALGORTA 944 602 033 www.portuzaharra.com

JOSE MARIA GORORDO | 'Bizkaia en la Edad Media' liburuaren egilea

«Eskubide historikoak betikoak dira; foruak, bart gauekoak»

Gauza askorengatik da ezaguna Jose Maria Gorordo (Plentzia, 1947) Bilboko alkate ohia. Azken urteetan ikerketa historikoan murgilduta ibili da, eta Bizkaiko iraganaren gaineko 1.400 orrialde dira emaitza.

TESTUA: UNAI BREA ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Apirilean aurkeztu zenuen *Bizkaia en la Edad Media*, foruen galeraren gaineko historiografia ofiziala zalantzan ipintzen duen lan mardula. Lehenengo aldiz aukera egon da Juan Antonio Llorentek historiagileak 1805ean argitaratutako *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas* lana inpugnatzeko. Llorente mertzenario bat izan zen, eta hark ipini zuen, obra haren bidez, euskal foruak abolitzeko oinarri intelektuala. Gero saria eman zioten, kargu politiko bat. Argi eta garbi kontratatu egin zuten. Eta liburuan diodanez, erabili zituen agirietako batzuk berak manipulatu zituen.

Hark esandakoari kontra egiten dioten zenbait obra jaso dituzu zuk, ezta? Bai. Garai hartako Bizkaiko Aldundiko idazkaria-edo zenari (*consultor perpetuo*, esaten zioten orduan), Francisco de Arangureni, Llorenteren lana gezurtatzeko eskatu zioten Araba, Bizkai eta Gipuzkoako aldundiek. Baina haren lanaren bigarren zatia, argudio juridikoak zeuzkana, argitaratzea debekatu zuten eta ezin izan zen 1994ra arte ikusi. Bestalde, Domingo de Lerin izeneko fraide beneditar ezezagun batek historiaren ikuspuntutik ipini zuen auzitan Llorenteren obra. Baina haren lanaren berririk ez da egon orain gutxi arte: ikerketa egiten nenbela topatu nuen beraren 300 orrialdeko eskuizkribu bat. Hori da liburu honen ekarpenik handiena. Inoiz ez dira hiru lanak elkarrengatik konparatu ahal izan.

Zer diote, batzuek eta besteek? Arangurenek eta Lerinek diote Bizkaiak betidanik zeuzkala bere arauak; alegia, oso-oso aspalditik idatzi gabeko usadio eta ohituren araberako gobernu zeukala. Hori askoz geroago jaso zen idatzizko foruetan, 1342an, 1452an eta 1526an. Llorentek kontrakoa zioen, hau da, Bizkaian zeuden arau guztiak kanpoko erregeen kontzesioak zirela, eta ematen zituzten bezala kendu zitzaizketela. Gutxi gorabehera 155. artikulugaz gertatu den bezala.

Diozunez, gauza bat dira foruak eta beste bat eskubide historikoak. Hala da, eta ez dira bata besteagaz nahastu behar. Eskubide historikoak betidanikoak dira zelanbait esatearren; foruak, ostera, oso berriak dira, bart gauekoak ia. Gernikan batzarra batu zela egiaztatzen duen lehenengo agiria 1307koa da, baina eskubide historikoak askoz lehenagokoak dira, orain dela milaka urtekoak, hor dago koska.

Izan ere, Bizkaiak *de facto* estatu independente modura jardun zuela diozu. Bai, 1379ra arte.

Bizkaiko jaunaren agintepean? Tira, jaenez gauza asko esan liteke. Besteak beste Arangurenek eta Lerinek defendatutako teoria tradizionalak diote, eta oinarri sendoa daukate, paktua zegoela jendearen eta jaunaren artean. Paktutik dator boterea. Dena den, hutsegitea litzateke garai haiek gaurko irizpideen



Bost urte eman ditu Jose Maria Gorordok *Bizkaia en la Edad Media* liburua idazteko ikerketa egiten.

Historiatik politikan eragiteko itxaropena

«Nire helburu nagusia, liburu honeguz, ikerketa gehiago egin dadila eragitea da», dio Jose Maria Gorordok elkarrizketa amaitzean dagoela. «Honelako lan bateguz politikan eragin daitekeen? Espero dut baietz, politika oso garrantzitsua delako hemen oso gutxi idatzi delako. Euskal historiagile gutxi daude, arrazoi batengatik: lurralde hau paganoa izan zen X. mendera arte gutxi gorabehera; beste leku batzuetan, ostera, kristautasuna lehenago hasi zen. Eta idazten zutenak abadeak, fraideak eta abar ziren. Historia aztertuta ikusten da idatzi duten gehienak horiek izan direla. Eta ezpatadunak agindutakoa idazten zuten».

arabera epaitzea. Aro feudalean, jaunek uste zuten lurraldearen ugazabak zirela, euren ondarea bailitzan. Ugazabak, ez agintari politikoak. Edozein kasutan, tesirik koherente eta zentzuzkoenak dio orduko jaunak burujabeak zirela euren herrialdeetan, baina hortik kanpo ere lurrak zeuzkatela, eta horiei zegokienez tokian tokiko agintariaren menpekoak zirela. Baina Bizkaia lurralde subiranoa zen, garai hartako esangura feudalgaz beti ere.

Llorenteren tesiak historiografia ofiziala dira gaur egun, oraindino? Bai noski, horixe esan dute 155. artikulua defendatu dutenek. Lurralde bateko araudia jatorrizkoa den, edo beste inork emandakoa, funtsezko kontzeptua da burujabetzaren auzia aztertzeko.

Kontua da hainbat arrastoren arabera Llorente bera prest egon ei zela Bizkaiko burujabetza idatzitako hura beste liburu batean gezurtatzeko. Ezin izan duzu frogatu, baina. Hala da. 1864an Madrilgo Senatuan egin zen euskal foruen gaineko eztabaida baten akta irakurri nuen (hamahiru egun iraun zuen eztabaidak, bide batez), eta han jasota zegoenaren arabera, euskal senatari batek esan zuen Llorentek bere burua eskaini ziola Bizkaiko Aldundiari liburu bat idazteko, *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas*-en berak adierazitakoa gezurra zela esanez. Ordainduta, noski. Beste euskal senatari batek esan zuen Llorentek horrelako liburu bat idatzi zuela, eta Bordelen argitaratu. Aktetan ez da gai horren gaineko beste aipamenik ageri, ordea. Ni urtebete inguruz ahalegin du naiz liburu hori topatzen, eta Llorenteren obran aditua den Gerard Dufour historialari frantziarragaz berba egin ostean, hark bidali zizkidan datuen arabera ez zen sekula halako libururik idatzi. Askoz zailagoa da, noski, bestea ikertzea, hau da, Llorentek Diputazioari bere burua eskaini ote zion. ◀

ERANDIO | Kiroldegietako greba

203 egun behar izan dira akordioa lortzeko



Grebalariak emandako prentsaurreko bat.

Azaroaren 9an hasi zuten greba Erandioko udal-kiroldegien adjudikazioa daukan Bi Sport 2011 enpresako beharginek, eta joan den ekainaren 1ean itzuli ziren lanera, sei hilabete eta erdiko borroka-oren ostean akordioa lortuta. 203 egun guztira. Denbora-tarte horretan zabalik egon dira Alzagako eta Astrabuduko kiroldegiak, baina zerbitzu batzuk ezin izan dira ohiko moduan erabili, begirale-faltagatik edota ikastaroak emateko irakaslerik ez egoteagatik. Abonatuak %20 inguruk baja eman du grebak iraun duen bitartean; 600 erabiltzailek, gutxi gorabehera.

Langileek «oso nekatuta eta triste» amaitu dute greba, Aitor Fernandez Ogueta ELAko ordezkariak HIRUKARI adierazidionez: «Gainontzeko herrietan aste bitan edo hilabete batean konpondu zen arazoa, eta uste genuen hemen ere hala izango zela». Fernandezek esanetan, beharginek ez dute ulertzen Erandion gatazka hainbeste luzatu izanaren zergatia.

Enpresako gerenteak, Jon Loizagak, negu osoa iraun duen egoerari amaiera emateagatik poza agertu du, *El Correo* egunkariari egindako adierazpenetan. Akordioa lortzeko langileei egindako ahalegina eskertu die, gainera. Grebaren lehen asteetan, Loizagak esan zien ez zela gehiago sindikatuagaz negoziatzera jesarriko. «Langileok maiatzean igarri genuen egoera hoberantz zihola», dio Aitor Fernandezek, «hasieran ez baitzegoen borondate politikorik».

Udalak, bere aldetik, alde biak egindako bitartekaritza-lana defendatu du, Josean Perez Kiroletako ordezkariordearen ahotik, *El Correo* jaso duenez.

Langileek eta enpresak 2018-2023 bitarteko hitzarmena izenpetu dute, eta horren arabera urte urte lanorduko-purua murriztuko diete beharginei, astean 35 orduko lanaldira ailegatu arte. Gainera, lanorduetan prestatu ahal izango dituzte eskolak eta materialak, eta ez lanetik kanpo, orain arte bezala. Eszedentzietan dagokienez, urte bikoak izango dira, eta ez batekoak. ◀

BERANGO | Gazte Mahaia

Lantokiko gatazkak kudeatzen trebatzeko ikastaroa

Lantokian sortzen diren egoera deserosoak eta harreman txarrak bideratzeko Relaciona-T ikastaroa eskainiko du Berangoko Gazte Mahaia, Stay and Job espazioan. Ekainaren 10era arte egongo da zabalik izena emateko epea.

20 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago ikastaroa. Parte-hartzaileen lanpostuetako benetako adibideak landuko dituzte, egoera desatseginak kudeatzen irakasteko. Lantegia doakoa izango da, eta oraindino ez dute zehaztu zein egunetan egingo duten,

Antzerkiko teknikak erabiliko dituzte irtenbideak aurkezteko.

izena ematen dutenak adostuko dute eta. Ikastaroak sei orduko iraupena edukiko du.

Lankideak harreman txarrak, lanpostuaren ezaugarriek sortutako frustrazioa... Hainbat egoera gatazkatsu konpontzen ahalegintzeko balio du Relaciona-T tailerrak. Aurkeztutako egoerak antzeztu eta bideoz grabatuko dira. Ondoren bideoak ikusi eta bertan dauden emozioak aztertuko dituzte. Azkenik, irtenbideak aurkeztuko dituzte, antzerkiko teknikak erabilia. Parte-hartzaileei ziurtagiria emango diete. ◀

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA **UDA KO** IKASTARO TRINKOAK

CURSOS INTENSIVOS DE VERANO **2018**

orain, RKE-n!!
(Romo Kultur Etxea) Santa Eugenia plaza 1-4. solairua (ROMO-GETXO)
94 464 62 99 • euskaltegi@getxo.eus

Uztailak 3-24 (80 eskola-ordu)
MAILA GUZTIAK / TODOS LOS NIVELES • 8:00etatik 13:30era
Aurre-matrikula: ekainaren 27ra arte • 88,00 euro

Irailak 4-26 (80 eskola-ordu)
B1-B2-C1 (azterketak prestatzeko) • 8:00etatik 13:30era
Aurre-matrikula: uztailaren 20ra arte • 88,00 euro

«Emakumeak aldaketa kolekt



David Beorlegui Zarranz historialariak azken hiru hamarkadetan Getxoko emakume-elkarteen eta mugimendu feministen sorreraren historia berreraiki du, haren protagonisten narrazioen eta ahozko iturrien bidez.

TESTUA: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

Demokraziaren hasieran sortzen hasi ziren Getxoko emakumeen elkarteei merezi duten protagonismoa eman gura die azterlanak, herrian aldaketa kolektiboaren zein banakoaren eragile izan direlako, eurentzat eta Getxorako ondorio positiboak ekarriz. *Denon artean* ikerketa-lana Getxoko Udalaren beka bati esker sortu dute, eta udalerriko liburutegi eta elkarten artean banatu dute.

Zer aurkituko du irakurleak *Denon Artean* lanean? Emakumeek bultzatutako askotariko kolektiboen historiari errepasso kronologiko laburra egiten zaio liburuan. Gainera, talde horietan parte hartu zuten emakumeen balorazioei ematen zaie garrantzi handia. Amaierarik gabeko edo agortutako kontakizunik ez dago liburuan; helburua izan da talde horien denen iritziak aurkeztea, bestelako interpretazioak alde batean utzi gabe eta gaian sakontzen jarraitzeko gonbitea eginez.

Zer erakutsi gura izan duzu horretan? Alde batetik, euren kezak komunean jartzeko emakumeak elkartzeak ondorio eraldatzaileak dituela erakustea, bai eurengan baita inguru hurbilenean ere. Beste alde batetik, azaltzea gizarte matxista batek

sortutako emakume-eredua zalantzan jartzeko borondatea izan dela talde denen oinarrietako bat, emakumeen jabetuntzarako eta emantzipaziorako eredu berriak sortzeko gako gisa. Era berean, iniziatiba denen balioa aurkeztu gura izan dut.

Zein izan da emakumearen papera euskal gizartearen historian? Herritarren erdia dira emakumeak eta tradizionalki gutxi en ordaindutako lanak zein ordaindu bakoak egin behar izan dituzte, hala nola zaintza-lanak.

Eta Getxon, berezitasunik egon da beste leku batzuek alde-ratuta? Getxon egon daitezkeen diferentziak bertan dagoen konplexutasun soziologikoan oinarritzen dira. Auzo oso ezberdinak daude eta identitateak oso ezberdinduta daude. Hala ere, uste dut emakumeek oso modu aktiboan parte hartu dutela udalerriko hazkunde asoziatiboan.






Zure ikerketa 1975etik aurrera Getxon egondako emakumeen elkarteetan oinarrituta dago. Aurretik ere elkartzeko saiakerarik egon da? Bai, baina modu ezberdinetan. Alderdi politikoei lotutako emakumeen elkarteak egon ziren XX. mendearen hasieran, baita elizari lotutakoak ere, hala nola dantza-taldeak eta Biblia irakurtzeko taldeak. Hala ere, talde horiek denak kanpoan uztea erabaki nuen erakunde handiago batzuen menpe zeudelako, gizonek zuzendutakoak, alegia.

Zeintzuk izan dira emakumeen motibazio historikoak elkartzeko? Elkartzea, ezagutzea, ezinegonak komunean jartzea, euren errealitatean eragina izatea, baita herrian eragitea ere.



«Tiboaaren eragile izan dira»

1975etik aurrera Getxon egondako emakumeen elkarte batzuk

| | | | | |
|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>Roda elkarte</p>  <p>Getxon eratu zen emakumeen lehenengo elkarte izan zen. 1975ean sortu zuten eta oraindino funtzionatzen du.</p> | <p>Romo eta Algortako emakume-batzordeak</p>  <p>1970eko hamarkadaren lehen erdian talde feministen eztanda bat egon zen EAEn, baita Getxoko auzo bi horietan ere.</p> | <p>Etxekoandreen Txokoa</p>  <p>Portu Zaharreko emakumeek adiskidetasun-harreman handiak eta komunitate-lokarri sendoak eratu zituzten.</p> | <p>Andrak eta Etxekin elkarteak</p>  <p>Emakumeen Sustapenerako Zentroaren barruan sortu ziren lehenengo elkarte soziokulturalak dira horiek.</p> | <p>Gizatiar Elkarte</p>  <p>Itzubaltzetako emakume bik bere buruaz beste egin ostean, halakorik ez errepikatzeo asmoz sortu zuten elkarte.</p> |
| <p>Eskuz Esku Elkarte</p>  <p>Emakumeak sustatzeko, jendartean parte har dezaten bultzatzea eta prestakuntzarako elkarte da Eskuz Esku.</p> | <p>Gune alternatiboetako feminismoa</p>  <p>Sastraka, Txorimalo eta Itzubaltzeta gaztetxeetan ekimen feministak garatu zireneko gune batzuk izan ziren.</p> | <p>Bilgune Feminista</p>  <p>2001ean Leitzan (Nafarroa) egindako topaketetan dauka jatorria. 2002an Euskal Herrira zabaldu zen.</p> | <p>Enclave de Ciudadanas</p>  <p>Bere helburu nagusietako bat bihurtu du herritarren parte-hartzea handitzea, besteak beste.</p> | <p>Haziak</p>  <p>Algortako gazte-talde feminista da. Gaiak mahaigainean ipintzen dituzte, gazteenei begira, kontzientzia sortu guran.</p> |

Motibazio horiek aldatuz joan dira hiru hamarkadotan? Bai, noski. 1930eko eta 1940ko hamarkadetan jaiotakoek etxeko isolamendua gainditu gura zuten, etxekoandreen eredu hautsi eta euren bizi-ingurua zabaltzeko. Emakume gazteagoek kutsu politikoagoa izaten zuten, utopikoagoa, berdintasunaren alde. Gaur egungo feminismoak, aldiz, bestelako arazoetan ere eragin gura du: ezberdintasunerako eskubidea aldarrikatzen du, besteak beste.

Diozunez, 1977an Leioan egindako jardunaldi feministek Getxon talde feministak sortzea eragin zuten. Zer dela eta? Ordua arte ezkutuan eta modu batean alde batean utzita zegoen kolektibo bat azaleratu zutelako. Emakumeak bakarrik ez zeudela ikusarazi zuten eta mugimendu berri hori irauteko eta bere ahotsa entzunarazteko etorri zela.

Zeintzuk ezberdintasun daude 1970eko hamarkadako eta gaur eguneko mugimendu feministen artean? Hasierako kolektibo horiek Bizkaiko Emakumeen Asanbladara lotuta zeuden organiko. Bertatik helburuak ateratzen ziren, eta hasiera batean oso zentratuta zeuden antisorgailuen despenalizazioaren eta abortuen aldeko kontuetan. Talde horietan lanean zeuden emakume asko diktadurako klandestinitatean ibilitakoak ziren eta sindikatu, alderdi politiko eta auzokideen elkarteetan militatzen zuten. Gaur egun, kolektiboen autonomia handiagoa da, baina antolakuntza-eredua asanblearioa da oraindino. Teknologia berriek eta lan egiteko eredu berriek ere garrantzia ematen die bestelako talde batzuek sareak osatzeari. Antzina horri ere garrantzia ematen zitzaion, baina ez zegoen teorikoki garatuta.

Getxoko emakumeak «Oraindino landu ez den gai interesgarria zela irudituztza, baita udalerriko auzokideen artean ezezaguna zela ere»

Taldeen elkarlana «Talde feministek elkarlanean aritzeko ohitura izan dute Uribe Kostan, 1970eko hamarkadatik gaur egunera arte»

Pizte feminista «Emakumeak bakarrik ez zeudela ikusarazi eta mugimendu berri hori irauteko eta bere ahotsa entzunarazteko etorri zen 1970eko hamarkadan»

1970eko eta 1980ko hamarkaden ezteandaren ondoren, feminismoa edo mugimendu feminista Getxon lo zeudela ematen zuen. Hala ere, badirudi azken urteotan indarra hartu duela berrito. Hala da? Sentsazio hori orokorra izan da Euskal Herrian, baita espainiar Estatuan ere. Hala ere, ez nuke esango feminismoa lo egon denik, baizik eta latente. Trantsizioan egondako mugimenduen intentsitatea berriro lortzea zaila zen arren, esango nuke ezkutuko lan handia egon dela. Emakume batzuek elkarrizketak bilatu zituzten beste mugimendu batzuek, beste batzuek instituzioetan lan egitera egin zuten salto, eta beste batzuk gaztetxeen munduan murgildu ziren. Gaur egun, bai, pizte feminista hori nabarmena da, eta pertsona asko hasi da ezaugarri berriak dituen feminismo horren inguruan teorizatzen.

Zer-zelako garrantzia eduki zuten gune autogestionatu eta alternatiboetan sortutako mugimenduek? Esango nuke garrantzia handia izan zutela eta leku oso adierazgarrietan presentzia izan zutela. Garrantzia izan zuten mugimendua eta tentsio feminista mantentzeko gai izan zirelako garai oso zailetan. Aitortzen ez zaion arren, oso lan garrantzitsua egin zuten lan-eremu horietan kontzientziatzeko egindako ahaleginagatik.

Zeintzuk auzotan egon da biziago mugimendu feminista? Ikuspuntu historikotik, Itzubaltzeta/Romon eta Algortan. Horietan sortu ziren lehenengo taldeak, eta gaur egun ere talde gehien dituen auzoak dira horiek.

Zelan definituko zenuke Getxoko mugimendu feminista? Historia aberatsa duena, askotarikoa eta etorkizun oparokoa. ◀

LÁSTIMA TEATRO | Antzerkitxiki programa

«Umetan, jolaserako prest egotea baino ez da behar»

Erandioko 4 eta 15 urte arteko neska-mutilek Antzerkitxiki programan izena emateko aukera edukiko dute ekainaren 15era arte. Uztailean antzerki-eskolak emango dizkie Lástima Teatrok, euskaraz.

KEPA UGARTE MARTIARENA ▶

Lástima Teatrok bost urte daroatza Antzerkitxiki programa egiten. «Astrabudian finkatu ginen talde moduan, eta oso argi geneukan antzerki-eskolak eman gura genituela», dio Leire Orbe Rosales konpainiako kideak. Erandioko Udalagaz berba egin ostean, programa aurrera ateratzeko proposatu zieten. «Arrakasta handia eduki dugu lehengo urtetik, eta hori ez da galdu. Beraz, ez dago ezelako arrazoirik egitasmoagaz ez jarraitzeko», azpimarratu du Orbek. Antzerkitxiki programaren helburua da Erandioko umeak eta nerabeak antzerkiaren diziplina ugaritara hurbilaztea. Ikastaroaren akabuan antzezlan musikal bat egiten dute neska-mutilek, senideen aurrean.

Zer helburu dauzka Antzerkitxiki programak? Lástima Teatro bost aktorek osatzen dugu, Getxoko Antzerki Eskolan ikasitakoak. Gure helburua umeek antzerkiaz gozatzea da. Oso ondo datorkie lotsa galtzeko, beste ume batzuk ezagutzeko, istorioak sortzen ikasteko eta horiek lantzeko. Lehenengo egunean, antzerkirik egin gura ez dutela esanez etortzen dira neska-mutiletako askok; lotsa edukitzen dute. Azkenean, beti lortzen dugu antzerkia gustukoa eduki dezaten. Ez dugu inor behartzen ezer egitera, umeak oporretan daude eta haiek ondo pasatzea gura dugu. Antzerkia jolastat hartzea lortzen dugu.

Ikastaroan komedia musikal bat sortuko dute parte-hartzaileek. Horretarako kapaz dira umeak? Horretarako eta gauza askotarako. Gidoia eman eta hori lantzen laguntzen diegu; eszenografia eta jantziak eurek egiten dituzte. Testua arin ikasten dute eta entseatzea asko gustatzen zaie. Ikastaroaren amaieran, gurasoen eta senideen aurrean antzezten dute obra; hori pila bat gustatzen zaie umei. Besteak beste, ahotsa, gorputza, interpretazioa eta eskulanak lantzen ditugu antzerki-eskoletan; eta horregaz guztiagaz antzerki musikal sortzen dugu. Artista peto-petoak dira denak.

Arte eszenikoetarako gaitasun berezirik eduki behar dute umeek, Antzerkitxikin parte hartzeko? Denek daukate gauzarik garrantzitsuena: gogoak eta ilusioa. Horregaz nahikoa da. Batzuek antzerki-eskolak hartzen dituzte euren ikastetxeetan,



Jolasen bitartez ikasten dute umeek antzerkia egiten. HODEI TORRES

Izena emateko oinarriak

Nori zuzenduta dago?

Erandioko 4 eta 15 urte arteko neska-mutilik.

Hizkuntza

Euskara.

Txandak

Lehenengo txanda: uztailearen 2tik 13ra, 08:30etik 14:30era, Altzagako azoka zaharrean. 150 euro.

Bigarren txanda: uztailearen 16tik 27ra, 08:30etik 14:30era, Altzagako azoka zaharrean. 150 euro.

Txanda biak: 280 euro.

Izen-ematea

Ekainaren 15era arte, Astrabuduko eta Altzagako udal-bulegoetan.

Informazio-batzarra

Ekainaren 26an, 18:00etan, Altzagako azoka zaharrean.

baina gehienek ez dute inoiz horrelakorik egin. Bat-batean zerbait berria ezagutzen dute. Umea zarenean ez da ezer berezirik behar, jolasteko eta parte hartzeko prest egotea bakarrik.

Zer lanabes erabiltzen dituzue umei antzerkia erakusteko?

Jolasak erabiltzen ditugu. Adin horretan antzerkia egitea olgetan ibiltzea dela erakusten diegu. Hainbat jolas egiten ditugu egunero, eta astean behin kalera irteten gara eta ur puxikakaz jolasten gara. Lehen aipatu dugun legez, eurek ondo pasatzea gura dugu.

Antzerkia baino zer edo zer gehiago ikasten dute umeek?

Antzerkian lan-taldea oso garrantzitsua da; adin askotako umeak elkarlanean ibiltzea eta besteen lana errespetu osoz ikustea lortzen ditugu.

Umeengan aktore-sena pizteko ere balio dezake?

Bai, noski! Udako ikastaroaren ostean, antzerkia egiten segitzen dute askok. Oso polita da hori.

Zer da gehien atsegin duzuen umeak egiten duzuen lanaz?

Euren energia, irudimena eta gogoak, egiten duten dena egiteko. Asko ikasten dugu eurakaz lan egiten. Gainera, ez daukate beldurrik gauzak egiteko orduan; nagusiak garenean, ostera, buruari gehiegi eragiten diogu, askotan. Pentsatu barik sortzen dituzte gauzak umeek, gorputzak erabiliz. Azken finean, antzerkia sortzea da, ipuinak kontatzea. Eta garrantzitsuena: ez dago ipuin txarrik eta ipuin onik. Hori arin ikasten dute. Bestalde, oso polita da ikustea umeak zelan heltzen diren lehengo egunean eta zelan joaten diren azkenengoan. Lehenengoan lotsatuta etorri arren, umeetako asko bueltatu egiten dira berritoren ere, ikastarorako deialdia zabaltzen dugunean. ◀

Euskal kantaz betetako eguna



© ITXASARGIA

ALGORTA | II. Getxo Kantari Eguna
Zapato honetan, ekainaren 9an, iaz horren arrakastatsua izan zen ekitaldiaren bigarren edizioa egingo du Getxoko Itxas Argia kultur elkarteak. Hala, 11:00etan mokadua egingo dute Biotz Alai plazan, egunari hasiera emateko. Ordubete beranduago, ostera, kantu-jiran abiatuko dira herrian zehar. Herri-bazkaria ere Biotz Alai plazan egingo dute, 15:00etan. Horren ostean egingo dituzte herriko bertsolarien saioak, kantak eta dantzaldia. Ekitaldia 20:00etan amaituko dute, bertsoak eta azken kanta abestuz.

Antzerkia

Ekainak 8, barikua

Club de los Cuentistas

19:00 | Algortako kultur etxea | Getxo
Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Berbaldiak

Ekainak 8, barikua

Deportistas, youtubers e instagramers mahai-ingurua

19:30 | Kurtzio kultur etxea | Sopela
Alex Segura *youtuber* almeriarrak, Ibon Larrinaga boxeolari itzubaltzetarrak, Shifer What kirolari madrildarrak, Hazal Nehir *parkour*-zaleak eta Leticia Canales surfleri sopoloztarrak parte hartuko dute. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Dantza

Ekainak 10, domeka

Berangoko Dantza Eskola

19:00 | Udalaren dantza-eskola | Berango
Ikasturte-akabuko erakustaldia egingo dute. Doan.

Erakusketak

Ekainaren 11tik uztailaren 22ra arte

Artea, artisauntza eta sorkuntza

Kultur Leioako erakusketa-gela | Leioa
Bertan egindako ikastaroetako ikasleen lanak.

Ikastaroak

Ekainak 12, martitzena

Argazkigintza: edizioa

19:30 | Atxutegi, 15 (Astrabudua) | Erandio
Astrabuduko Fotoclubegaz. Argazkien aukeraketa eta edizioa landuko dituzte. Gaztelaniaz. Doan.

Kirolak

Ekainak 9, zapatua

Igoera eta jaitsiera, piraguan

13:30 | Itsasadarra | Plentzia
Plentzia Piraguismo Taldeak antolatuta.

Armintzan joko duten taldeak ezagutzera emango dituzte



BILBO | Txapel Reggae Stage Live
aretoan egingo dute aurkezpen-jaia, ekainaren 8an, 21:00etan. Sarrerak 15 euroan daude (12 euro aurretik).

Ekainak 10, domeka

Kosta Trail

09:00etatik aurrera | Udaletxeko plaza | Sopela
Informazio gehiago: Kostatrail.com

Plentzia-Billano zeharkaldia

12:00 | Plentzia
Plentzia Piraguismo Taldeak antolatuta.
Informazio gehiago: Piraguismoplentzia.net

Musika

Ekainak 7, eguena

Piano-entzunaldia

18:00 / 19:00 | Astrabuduko kultur etxea
Erandioko Musika Eskolako ikasleakaz. Doan.

Ekainak 8, barikua

Abesbatzen emanaldia

19:00 | San Agustin eliza (Altzaga) | Erandio
Udaberriko Kontzertuen 39. edizioa. Bengolea (Burtzeña, Barakaldo), Hala Dzipo (Barakaldo) eta Altzaga abesbatzek parte hartuko dute. Doan.

Txangoak

Ekainak 9, zapatua

Burdin Hesira bisita gidatua

09:00 | Urko kiroldegiko parkinga | Sopela
Gaztelaniaz. Doan. Informazio gehiago eta izen-ematea: turismo@sopela.eus / 944 065 519

Ekainak 10, domeka

Biasterira

08:00 | Astrabudua | Erandio
Astrabu Erandio Ibilbideak elkarreagaz. 20:00etan egongo dira bueltan. Informazioa eta izen-ematea: cmaeibilbideak@hotmail.com

Gesaltza Añara motor-irteera

09:30 | Karl Marx, 17 (Astrabudua) | Erandio
Astrabudu Club Motero elkarreagaz. 14:00etan egongo dira bueltan; txangoaren ostean mokadutxo egongo da. Parte-hartzea libre.

Zinema

Ekainak 9, zapatua

El malvado zorro feroz animazio-filma

18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Umeentzako animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

Han Solo: una historia de Star Wars pelikula

20:15 | Kultur etxera | Urduliz
Filma 7 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro.



© ERANDIOKO UDALA

Faotako (Erandio) jaiak

Ekainak 9, zapatua

11:30 Txupinazoa.
12:00 Puzgarriak eta umeen jolasak.
13:00 Trikiti-panderoa.
14:30 Okelazko paella-txapelketa.
17:00 Bingo-partida.
18:30 *Olgetan solas* kirol-jolasak.
21:00 Talo-txiki.
23:00 Dantzaldia Akerbeltz taldeagaz.
02:00 Gaupasa, Leg-Oh DJagaz.

Ekainak 10, domeka

12:00 Kalejira.
12:30 Euskal dantzen agerraldia.
14:00 Kanta herrikoiak.
15:00 Garagardotegi-jana (15 euro).
Izen-ematea: 605 746 176
17:30 Tiragoma-txapelketa.
18:30 Umeentzako diskoteka.

Ekainak 11, astelehena

13:00 Meza.
15:00 Herri-bazkaria (indaba-jana).
17:30 37. Briska Txapelketa.
20:30 Azken traka.

Martiartu-Goierriko jaiak

Ekainak 9, zapatua

09:00 Sukalkia.
17:30 Sokatira.
17:30 Umeentzako jolasak.
21:00 Saiheski-jana.
23:00 Dantzaldia Garilak 26 taldeagaz.
02:00 Bingoa.
02:30 Disko-festa, Markelin DJagaz.

Ekainak 11, astelehena

12:30 Meza.
17:30 Idi-probak.
17:30 Umeentzako jolasak.

Ekainak 13, eguaztena

12:00 Meza.
12:30 Nagusientzako mokadutxo.

ITURRIA: ERANDIOKO UDALA

BETIKO
IKASTOLA

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84 (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94 464 23 64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KiVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ATLETISMOA | Hilabete oparoa Berango Atletismo Taldean

Loraldia Berangoko kirolarientzat

Berango Atletismo Taldeak ondo baliatu du udaberria. Maiatzean, loreak legez batu zituzten txapelak, dominak eta emaitza onak Bizkaiko eta EAeko txapelketetan. Emakumeek garrantzia hartu dute klubean.

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ►

Aitor Cancio Aldama Berango Atletismo Taldeko presidenteordea pozik dago taldeko atletakaz, urrezko bat, zilarrezko sei eta brontzezko bost domina batu ostean. Dena den, «izen-abizenak nabarmendu baino» gurago du azpimarratzea urteak pasatu arren emaitza onak lortzen segitzen dutela, «nahiz eta gu horretan oinarritzen ez garen». Batez ere, eskola-mailan lortu dituzte postu onak, eta Bizkaiko selekzioan hiru atleta sartu izana goratu du. Cancioren ustean, «oro har, mantendu egin ditugu aurreko urteetako posizioak. Atleta berriak trebatzen gabiltza eta horren erakusle dira emaitza horiek. Ildoari eustea iruditzen zaigu garrantzitsua».

Kluba «denboraldiko puntu gorenean» dabil gaur egun. Hilabete eta erdi geratzen zaio denboraldia amaitu dadin eta aurretik badauzkate Euskadiko txapelketak eta Espainiakoak. «Atletentzat denboraldia ia amaitu da», Canciok dioenez. Federatuen %99k Euskadiko txapelketa dauka helburu, eta pare bat aste geratzen zaio. Estatukoan sartzeko gutxieneko denbora egin dutenek hilabete eta erdi edukiko dute aurretik.

Berango Atletismo Taldean eskualde osoko atletak dauzkate. «Getxotik ere etortzen dira, nahiz eta han beste atletismo-klub indartsu bat dagoen; eta batzuk Armintzatik datoz; Uribe Kostako azken gunetik», azaldu du Canciok. Denera, 120 bat atleta daude eskola-kirolean eta beste 70 bat kirol federatuan. Aurreko urteetako kopuruak mantentzen direlakoan dago Cancio: «Urtero ume askok izena ematen du denboraldi-hasieran eta gero jais ten doa kopurua, baina aurreko urteen ildo berean doa aurten ere. Izan ere, entrenamendua ez da erraza izaten: aurten negu oso gogorra izan dugu eta baja asko suertatu dira».

Josu Hernández klubeko presidenteak 2016an azaldu zuen klubean emakumezkoen gehiengo oso zabala zegoela, %85ekoa. Urte bi geroago, kopuru horiei eusten die taldeak: «Ia-ia emakumezkoen kluba gara, eta are gehiago eskola-kirolean», dio presidenteordeak. Horrek eragina eduki du trebatzaileen taldean: «Horretan ere emakumezkoen gehiengo



Klubeko kimuek euskaraz entrenatzen dute. © BERANGO ATLETISMO TALDEA

Atletismoan hastea

Atletismoan probatu gura duenak klubera hurreratu besterik ez du egin behar, Canciok dioenez: «Atletismoak daukan alde ona da ez dagoela sarbide-probarik. Ez dago leku mugaturik, beste kirol batzuetan legez, ezta gaitasun bat erakutsi beharra ere. Atletismoan, bertaratu, probatu, eta gustukoa baduzu, gonbidatuta zaude geratzeko. Gainera, ez dago arazorik denboraldiko zein unetan zatozen: orain hasi gura baduzu, ez duzu zertan irailera arte itxaron».

osatu da; aurten lau emakumezko eta gizonezko bik eroaten dituzte entrenamenduak». Gainera, horregaz batera beste aldaketa bat ematen dabil kluba: «Teknikarrietako bik euskaraz egiten dituzte entrenamenduak, kimuakaz. Hori guretzat garrantzitsua da eta ahalegintzen gara aurrerapauso gehiago ematen, euskaraz egin dezakeguna euskaraz egiten».

Klubean maila denak dauzkate, «benjaminetatik beteranoe-tara». Diziplinei dagokienez, eskola-kirolean denak praktikatzen dituzte, umeek proba ditzaten, baina federatuen mailetan lasterketak izaten dira nagusi: abiadurakoak, iraupenekoak eta erdi-iraupenekoak. Berbarako, «jaurtiketan badugu pare bat atleta, besterik ez, hutsaren hurrengoa, anekdotikoa». Hala, diziplina horiek erakusteko dauzkate batez ere, eta jakin-mina edo grina sortzen dionak horretan segi dezan. ◀

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK

Illeta, 1 · 48991 ALGORTA
944 305 243 · 607 952 977
regaraizar@gmail.com · www.garaizar.biz

LEIOAKO EMAKUMEAK | Beteranoen erretiro hirukoitza

«Profesionalak izateko pausoa datorren urtean helduko da»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Partidu berezia bizi izan zuen Sarrienak joan den zapa-tuan. Leioako Emakumeak futbol-sariketaz batera, lehenengo taldeko hiru jokalariek beteteranoen agur-ekitaldia egin zuen klubak. Garazi Celaya, Nere Viar eta Ziortza Askaiturrieta jokalariek talde gorri-urdina utzi zuten, Leioan hamasei urte jokatu ondoren. Lagunen, senideen, bazkideen eta harrobiko ume eta gaztetxoek maitasun-adierazpenen artean erretiratu ziren.

Klubean hamasei urte eman ondoren, zer sentitu duzue azken egunean? GARAZI CELAYA: Nire aldetik, izugarriko poza, benetan, lagunak eta familiakoak etorri zaizkigu eta. NERE VIAR: Ni oso trankil etorri naiz. Pentsatzen nuen azkenengo eguna zela, baina partidu piloa jokatu dugula eta hau beste bat zela. Azkenean, hemen ikusi ditut familia eta taldeko denak, eta hunkitu egin naiz. Oso gustura egon naiz, oso pozik. ZIORTZA ASKAITURRIETA: Ni, Nere bezala. Etorri gara beste egun bat izango balitz moduan; ez nuen pentsatzen hau azkenengo eguna izango zela. Egia esanda, badaramat denbora asko pentsatuz hurrengo urtean bueltatuko naizela berriro baina... Pena ematen du.

Zoritzarrez, 2-4 galdu duzue. Ginga hori falta izan zaio partiduari? G.C.: Bai, egia esanda, jokia ez da hoberena izan. Nire aldetik, gaur gura nuena disfrutatzea zen eta hori lortu egin dugu, giro ona sortu da. Egun honetaz gogoratuko gara. Z.A.: Uste dut pena izan dela emaitza. Denok gura dugu irabazten amaitzea, baina ondo pasatu dugu, disfrutatu dugu eta gainera, gu goizetik ibili gara hemen txikiakaz. Etorri dira gu ikustera eta garrantzitsuena ez da emaitza izan.

Zer dela eta erretiratu zarete? N.V.: Denbora asko ematen dugu hemen eta nagusiago egitean beste kontu batzuk ateratzen dira. Niri dagokidanez, lana da batez ere exijitzen didana.



Celaya, Viar eta Askaiturrieta protagonistak izan dira Leioako Emakumeak mailaz igo den aldietan.

Esperantza-zantzuak eta errealitate-frogak

Ziortza Askaiturrietak Iberdrola Ligan, telebistan eta teknikan ikusten dituen aldaketa nabarmenenak emakumezkoen futbolean: «Lehenengo mailan hasi dira telebistan partiduak ematen. Lehen partidu bakarra ikus zitekeen hemen, ETB1-en, Realak eta Athleticek jokatzeko bazuten, baina orain, astean hiruzpalau partidu ikus ditzakegu». Halere, arlo horretan ere oraindik asko dagoela egiteko dio. Bestalde, oinarriko futbol-entrenatzaile ohiak onartu duenez, «gu hasi ginenean ez geneukan horrelako maila. Lau talde ginen, elkarren aurka urte osoan jokatzeko ginen. Orain ikusten dut neska piloa direla, kalitate oso-oso onekoak eta aurrera doala hau». Kexu da, dena den, neskek futbola uzten dutelako mutilek baino lehenago, «ez dutelako ikusten profesionalizazio-maila hori». Hala, mutilek ez bezala, alde batera uzten dute futbola, ikasketengatik. Uste du aurrerapausoren bat eman beharra dagoela neskei bultzada emateko, aurrera egin dezaten animatzeko.

Beraz, futbola bigarren mailako kontua da gaur egun. Aurten gainezka ibili naiz; ez nuen disfrutatzen. Penagaz bada ere, futbola ez da lehentasuna orain.

Z.A.: Hiruron kasuan lana izan da. Hasi gara lanean, denbora piloa ematen dugu bertan, gero hona etorri... Ordu asko dira: hiru egun astean eta aparte partidua. Ez da oso urrun, baina ematen dugu aste-akabuan egun oso bat partiduari begira. Hala, astean egun bakarra gelditzen zaigu; denbora faltan dugu. Zer edo zer utzi behar dugu eta kirola alde batera utzi behar izan dugu, lana ez baitugu utziko.

G.C.: Azkenean lana dela eta %100ean ez aritzeko... Gu hirurok egunero etortzen gara entrenatzera, ez dugu hutsik egiten. Uste genuen ez genuela emango eman genezakeen dena eta erabaki hori hartu dugu; espero dugu erabaki ona izatea.

Uste duzue emakumezkoen futbola badoala profesionalizazioari? N.V.: Guk hamar urte genituela, mutilikaz jokatzeko ginen, *campo y playa*. Gaur egungo neskek, ostera, oso ondo dabilzala ikusten dut, oso prest futbolerako; txikitatik izugarriko maila erakusten dute. Eta hori nabaritu egiten da. Berbarako, gure klubean esaten dute profesionalizazio hori lortu gura dutela hurrengo urtean. Emango da pausoa, ziur.

Beste zer edo zer gaineratu gura duzue? Z.A.: Eskerrak eman gura diegu hainbeste urte futbolaz disfrutatzen utzi digutenei eta gure ondoan egon diren denei. ◀

Hiruka Kooperatiba Elkartearen
ohiko batzar nagusia

Data: 2018ko ekainaren 7an
Lekua: Azebarri Kultur Elkartea
(Euskal Herria Kalea, 14. Algorta)

Ordua: 18:30ean lehen delaldian
19:00etan bigarren delaldian.

Lan-zerrenda

1. Batzarraren Akta sinatuko duten bazkideak hautatzea.
2. 2017. urteko ekitaldiaren kontuen eta kudeaketaren azterketa eta oniritzia, baldin badagokio.
3. 2018an Kooperatibako bazkide bihurtzen direnen diru-ekarpen kopurua zehaztea, bai hasierako derrigorrezko ekarpena, bai kuota.
4. Errektore Kontseiluaren ekarpenak.
5. Bertaraturiko bazkideen ekarpenak.
6. Proposamenak.

hiruka

MASTITXU UDAL EUSKALTEGIA
EUSKALDUN PAUSOZ PAUSO

Udako ikastaro trinkoak
HABEREN MAILAK EGIAZTATZEKO IKASTAROAK

UZTAILA
Hasiera-data 2018/06/28
Amaiera-data 2018/07/20

IRAILA
Hasiera-data 2018/09/03
Amaiera-data 2018/09/24

5 horas al día, 85 horas en total de lunes a viernes 8.00-13.30 **93,50 €** prematricula apartir del 30/05/2018

5 horas al día, 80 horas en total de lunes a viernes 8.00-13.30 **88,00 €** prematricula apartir del 30/05/2018

Matrikulazioa
2018/06/18tik
2018/06/26ra

Matrikulazioa
2018/07/5etik
2018/07/11ra

Euskaraz ikasteko diru-laguntza jasotzeko aukera
HABER DIRUZ LAGUNDUTA



GETXO | 2018ko aurrekontuak, kolokan

Gobernu-taldeagaz zeukan akordioa hautsi du PPK

Getxoko udal-gobernuagaz (EAJ eta PSE-EE) 2018ko aurrekontuaren inguruan adostutako hitzarmena hausteko erabakia hartu du PPK. Gobernu-taldea «oso damututa» dago popularrek hartutako alde bakarreko erabakiagatik eta eskua luzatu die udal-talde denei, «elkarguneak eraikitzen jarraitzeko». PPK baieztatu du ez dela jeltzaleez fio, talde horrek Mariano Rajoyren zentsura mozioaren inguruan hartutako erabakiaren ondoren.

GETXO | Ibar Nagusien Etxea

Lekuz aldatzearen kontrako itxialdia bertan behera utzi eta nagusien etxea hamabi orduz zabalik mantendu gura dute elkarteko kideek.

BERANGO | Epaiketa

Saioa Sanchez Iturregi presoaren aurkako judizioa hasi da Espainiako Auzitegi Nazionalean, INEMeko bulego bat leherraraztea leporatuta.

GETXO | Hezkuntza

Isabel Celaá Diéguez aretarra Hezkuntza ministro izendatu du Pedro Sánchezen Gobernuak. Patxi López lehendakari zenean Hezkuntza sailburua izan zen.

URIBE KOSTA | Metro-zerbitzua

Gaueko tren-zerbitzua eskainiko du Metro Bilbaok ekaín, uztail, abuztu eta iraileko barikuetan eta jai-bezpera denetan.



PLENTZIA | 2018ko aurrekontuak

Udal-aurrekontuak ez ditu babestu EH Bilduren Gobernu-taldeak

Maiatzaren akabuan onartu zituzten 2018ko aurrekontuak Plentzian, hirugarrenez udal-batzarrean aurkeztu ondoren. Oposizioan dauden EAJk eta Plentziako Independenteei eman zieten babesa kontuei.



LEIOA | Industria

Vicrila beirategia erosi du Mivaricar sozietateak

Mivaricar taldeak erosi du Vicrila historikoa, eta Lamiakoko beira-enpresak atzean utzi du 2016ko abenduan abiatutako hartzekodunen konkurtsoa. Lantaldea 234 beharginek osatuko dute, eta soldata % 25 murriztuko da.



GETXOKO EH BILDU | Etxebizitzari buruzko proposamenak, kalera

«Eredu berrien harira, premiazkoa da ohiko eskemetatik ihes egitea eta elkarbizitza sustatzea»



TOSU BETIRAKO | Getxoko HAPO

«EAJk, PSOEek eta PPK... hiru hortz dituen porlanezko sardea iltzatu diote birikan Getxori»

10.447 ikasle

Iazko datuakaz alderatuta, %5,5 ikasle gehiago parte hartzen dabil egunotan Unibertsitatara Sartzeko Ebaluazioan (USE). Ikasle Abertzaleak-ek protestaldia egin zuen Leioako EHU.

Bideo-grabaketa zaharren bila



Filmografia zaharretan jasotako memoria berreskuratu gura du Plentziako Udalak, grabaketan jabetza familiena dela onartuta.

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Idoia Lorente
Erredakzio-burua: Unai Brea
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Iñigo Fernandez de Martikorena
Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Kudeaketa: Ziortza Merino, Idoia Ibarluzea
Kolaboratzaileak: Alazne Palacios, Kerman Santiago, Asier Barruetabeña
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 8.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

HIRUKA lagunen txokoa

Non dago? Lehiaketa

Getxoko Kultur Etxeari esker, Getxo Jazz jaialdira hurreratzeko sarrera bikoitzak zozkatuko ditugu

Uztaileko Getxoko jazz-jaialdiaz gozatzeko sarrera bikoitza lortu gura baduzu, ekainaren 22a (barikua) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.



Ekaineko saria



Udako oporraldian jateko pizza eta edari bi, Lemoizko Batzokiari esker

Lemoizko Batzokiari esker, sari hori zozkatuko dugu HIRUKA lagun eta bazkide denen artean.

Zozketan parte hartzeko, bidali ekainaren 30a (zapatua) baino lehenago zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 337.

Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publizitatea helarazteko soilik. Erabiltzaileak datuok zuzentzeko edo kentzeko helbide honetara idatzi dezake: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | 3 | | 1 | | 6 |
| 3 | 8 | | | | | | 4 |
| | | | 6 | | | | |
| | 6 | 3 | | | 9 | | |
| | | 5 | 3 | | | | |
| 1 | | | 9 | 4 | | | |
| | | | 1 | | | 5 | |
| | | 4 | 2 | | 6 | | 9 |
| 8 | 1 | | | | 2 | | |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 9 | | | | | | | 1 |
| | | | 3 | 6 | 2 | | |
| | 3 | | | | 5 | | |
| 4 | | | 5 | 9 | | | 6 |
| | 5 | | 3 | 2 | | | |
| | | | 8 | 6 | | | 9 |
| | | 3 | | | | | 5 |
| 2 | | | 7 | | | | |
| 5 | | | | 4 | 1 | 8 | |

Soluzioak

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 2 | 8 | 1 | 4 | 6 | 9 | 7 | 5 |
| 1 | 9 | 3 | 5 | 7 | 8 | 6 | 2 | 4 |
| 6 | 2 | 8 | 6 | 9 | 7 | 5 | 1 | 4 |
| 5 | 9 | 3 | 2 | 7 | 8 | 6 | 4 | 1 |
| 9 | 5 | 1 | 6 | 4 | 1 | 5 | 9 | 3 |
| 6 | 5 | 9 | 3 | 1 | 2 | 4 | 8 | 7 |
| 4 | 8 | 1 | 5 | 9 | 7 | 3 | 6 | 2 |
| 8 | 3 | 2 | 1 | 7 | 9 | 5 | 4 | 6 |
| 7 | 1 | 5 | 4 | 3 | 6 | 2 | 9 | 8 |
| 9 | 6 | 4 | 2 | 8 | 5 | 7 | 3 | 1 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 9 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 1 | 8 |
| 5 | 3 | 4 | 2 | 7 | 6 | 9 | 8 | 1 |
| 6 | 8 | 9 | 1 | 8 | 4 | 5 | 3 | 7 |
| 1 | 2 | 8 | 6 | 9 | 4 | 7 | 3 | 5 |
| 5 | 3 | 7 | 4 | 6 | 9 | 8 | 2 | 1 |
| 7 | 9 | 5 | 3 | 8 | 1 | 6 | 4 | 2 |
| 4 | 6 | 3 | 7 | 5 | 2 | 1 | 9 | 8 |
| 8 | 1 | 6 | 2 | 5 | 3 | 9 | 7 | 4 |
| 2 | 5 | 1 | 4 | 6 | 7 | 3 | 8 | 9 |
| 3 | 8 | 6 | 1 | 2 | 9 | 5 | 7 | 4 |
| 9 | 4 | 7 | 8 | 3 | 5 | 1 | 2 | 6 |

Hitza emanda

Aukera

Orain dela lau urte hitza «zirrara» zen: giza kate ederra osatu genuen. Bigarren aukera bat heldu zaigu aurten, ez dezatela esan: «Lau katu joan ziren!».



JOSU ARROYO IZKOA
Getxo



Musikariak **Item No**

«Gure taldearen bereizgarrietako bat estilo nahasketa da»



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ARGAZKIA: MIKEL PUERTAS ►

Laurogehiko hamarkadan musika-talde berri baten kasetea eskuetara heltzen zitzaiguneko bezalako urduritasuna sortzea lortu du Item No taldeak. Euren asmoak ulertzeko, diskoari pare bat buelta baino gehiago emateko beharra eragingo digute.

Taldeakide bakoitzaren aurkezpen laburra egiguzue. Jaioterria, aurreko musika taldeak... Denok gara algortarrak. Endika, abeslaria, bakarlarari ibili da gehienbat azken urteotan. Ikerrek hainbat talde eduki ditu aurretik eta orain Purple Vellocet taldean dabil. Koldok eta Mikelek Garrasika taldean jotzen dute.

Zelan eta zergatik sortu zenuten Item No? Proiektua bi bide paralelotatik hasi zen. Gehienok elkar ezagutzen genuen taldea sortu aurretik. Hasieratik geure abestiak egiteko helburua geneukan, eta hamaika ideia zeudenez, behin elkartu eta gutxira ekin genion konposatzeari.

Oso musika-talde mota ezberdinetatik zatozte, oso estilo ezberdinetatik. Zer dela eta elkartu zarete, hain bestelako profileko jendea izanda? Egia esan musikarekiko ikuspuntu nahiko ezberdinak daude taldean, baina ezberdin daukagun horrek berak erosten du taldea aurrera. Hortaz, amaierako produktua nahiko berezia izaten da. Guztiok eman dugu gure estilo apur bat, bestee-

Txorimalo gaztetxearen entsegu lokala



«Lokala Musikerook kudeatzen dugu eta gure herrian dauden proiektu musikal guztientzat irekita dago. Guretzat izugarritzko aukera izan da hor gure musika jorratu ahal izatea. Txorimalo gaztetxeak bertoko taldeei eskaintzen digun eremua gabe ezin izango genuke musikalki garatu».

na jasoz. Azken finean, horren denaren azpian musika hutsarekiko daukagun grina dago.

Talde moduan hasieran zaudetela esango nuke. Zelan doakizue? Jotzeko lekuak erraz topatzen zabilzate? Bai, hasiera-hasieran gaude. Proiektu berri bat hasteak dakarren ilusioa eta gogoak dauzkagu, eta espero dugu luze irautea. Dena den, ez da erraza izaten, eta jotzeko lekuak topatzea zaila suertatzen zaigu, oraindik jende gutxiren belarrietara heldu delako Item No.

Mungian abesti bat grabatu duzuela entzun dut, eta masterizazioa Londresen egingo dizuetela. Zelan sortu zen aukera? Mungia Magic Box estudioan grabatu dugu gure lehen abestia, James Morgan-en laguntzaz. Ikerrek aurretiaz grabatu zuen estudio horretan, eta berak eroan gintuen. Abesti bakarria grabatzea zen ideia, lehenengoa, batez ere erakusteko zer edo zer edukitzeko, eta gauzak ondo joanez gero disko osoa grabatzea bertan.

Kultura, eta musika batez ere, ez daude garairik onenean. Zelan ikusten duzue egoera? Kristoren zailtasunak daude edozelango proiektu artistikoak aurrera eramateko. Hala ere, dena ez da guztiz beltza: gure inguruan arte forma ugariak sortzen ari dira, garatzeko bultzada txiki bat behar dutenak. Txorimalo gaztetxea eta antzeko proiektu autogestionatuak, esaterako, bultzada hori ematen saiatzen dira, eta haiei esker zailtasun batzuk gainditu daitezke. ◀